

# Leintz bailarako Tertzioaren zutoihala

GURE ALTXORRAK ARETXABALETA ETA ESKORIATZA



**Testua:** Aitor Antxia  
**Argazkiak:** Aitor Antxia eta Goiena

Sarri galdetu digute nondik ote datorren Aretxabaletako Andramari egunean eta Eskoriatzako San Pedro egunean ateratzen den bandera edo zutoihala; gainera, Eskoriatzakoa Aretxabaletakoaren berdina dela, hori zer dela eta?

Gauza hauek argitzeko asmotan, Rosa Maria Ayerbe Iribar historialariarengana jo genuen, bera baita Leintz bailaran aditua. Ayerbe, Felix Martinez Llorente bexilologian jakitunarekin (Vexilologia: banderen azterketa) jarri zen harremanetan, eta hona hemen bien artean eginiko lantxoak.


**Leintz bailarako zutoihala**  
Leintz bailarako –Aretxabaleta eta Eskoriatza– Batailoiaren edo Tertzioaren zutoihal baten aurrean gaude. Gebaratarrekiko menpekotasuna utzi ondoren, errege-lurraldeetan sartu ondoren –1556. urtean–, Aretxabaleta bailarako buru bihurtu zen, bertan zepoa eta pikota ezarrita; gainera bertan egiten ziren alardeak eta armen erakustaldiak gerra garaian.

Dena den, erabaki hura ez zen guztiz baketsua izan, 1610 eta 1616. urteen artean liskarra sortu zen Gerra Kontseiluaren aurrean, Aretxabaletak azaldu zuenean bere gogoa zela Leintz bailarako Tertzioen alardeak bertan egin zitezela, bai bake, bai gerra garaian ere.

Kontseiluaren iritziz, Aretxabaletari onartu egin zitzaion eskubide hori –1614ko urriaren 12an eta 1616ko apirilaren 16an, 1617ko karta betearazlean adierazten denez–.

Beraz, badakigu XVII. mende hasieran Leintz bailarak –Aretxabaleta, Eskoriatza eta inguruko elizateak– Tertzio Konpainia bat osatzeko beste jende mugitzen zuela, bere ofizial eta agintariak barne. Are gehiago, 1717. urtean berriz sortu ziren liskarrak auzotarren artean, kapitain eta ofizialak aukeratzeko orduan.

**Liskarrak buruen hautaketan**  
Aretxabaletakoek arrazoitzen zuten eurei zegokiela ofizialen



## ARETXABALETAN ANDRAMARI EGUNEAN ETA ESKORIATZAN SAN PEDRO EGUNEAN ATERATZEN DA

izendapen eskubidea; Eskoriatzakoek, aldiz, txandaketa eskatzen zuten edo, behintzat, ofizialen zozketa bien artean egitea. Azkenean, Foru Aldundiak erabaki zuen bi herrien artean egin zedila, eta, posible izan ezean, zozketa bitartez. Bietako herriren batek erabakia ez onartuz gero, berak bakar-bakarrik osatu beharko zuen Konpainia osoa, eta ez zegokion erdia bakarrik.

Aretxabaletaren eragozpenak zirela medio, Hondarribiko Batzordera eraman zuten arazoa eta bertan zera erabaki zen: herriek, euren artean trukaturik, izendapenak egin zitzatela.

zuzendapen eskubidea; Eskoriatzakoek, aldiz, txandaketa eskatzen zuten edo, behintzat, ofizialen zozketa bien artean egitea. Azkenean, Foru Aldundiak erabaki zuen bi herrien artean egin zedila, eta, posible izan ezean, zozketa bitartez. Bietako herriren batek erabakia ez onartuz gero, berak bakar-bakarrik osatu beharko zuen Konpainia osoa, eta ez zegokion erdia bakarrik.

**Erdiko irudi txikiak:** lehen, Madrilgo Galdi Museoan dagoen XVIII. mende hasierako tapiza; bigarrena, marrazki berria. Adituek ez dakite nori dagokion. Zenbaitek suitzarrek lotu arren, zuzenagoa litzateke Espainiako Armadako Tertzio batekin lotzea, sugar apalak dituelako.

